

eta idatziz jakin zuen hark euskara eta euskal kultura defendatzen eta laguntzen. Jakin dezagun guk ere, ehun urte geroago eta asmo berak gidaturik, hura eta haren modukoak ohoratzen eta goresten.

*Andres Urrutia*

### **Aita Xanti: Norberaren barne isilean bizirik!**

Aita Xanti Onaindia aipatzean haren hainbat ekimen eta lan da burura datorriguna, denar ere harreman-mota ezberdinen bidez gauzatuz joan ziren ahaleginak. Halako harrera abegikor eta irekiko gizona izanik, karmeldar honen lagunarte-ingurua zabala izan zen, fraideen artean, noski, baina era berean kultur eta euskara-munduan.

Behin baino gehiagotan topo egin genuen elkarrekin, han eta hemengo topalekuetan, baina harreman pertsonal hori ez zen izan adiskidetasun iraunkor batean zaindua, noizbehinkako hitzorduetakoa baizik.

Hala ere, nire gaztaroko euskaltasun pertsonalaz lekukotasunik eskatu zaidanetan, Xanti Onaindia ia beti aipatu izan dut, adibidez azken egun hauetan Amerikarako bideo-grabaketa bat egin behar izan dudanean.

Aita Xanti bere *Karmel* eta argitalpenekin hasi berri zenean, mutikoa nintzen ni; argitalpen berri gutxi agertzen zen urte haietan, hagitz gutxi (gogoan duzue 1949an sortutako Itxaropenaren *Kulixka Sorta* hura?), eta hamazazpiren bat urte nituela suertatu zitzaidan Onaindiaren lanekin topo egitea.

Euskalgintzako mundu idatzirako lehen urratsak ematean, has-teko *Euzko-Gogo*a-k izan zuen nire baitan kultur leku behinena (geroxeago *Egan*-ek beste molde batean bezala). Bestalde, liburu

jakin bat dago, euskal prosa idatziaren gozamina eta bikaintasun posiblea erakutsi zizkidana: Axular-en *Gero* (1954an M. Lekuonak emandako edizioan, Villasanterenean baino lehenagotik). Filoso-fiako ikasketetan nenbilela, euskal prosaren emaitza onik egon bazegoela erakutsi eta esku-eskuetan jarri zidana izan zen hori.

Baina, alde horretatik, Lekuona baino lehen, niretzat Onain-dia dago. Zer dela eta?

Euskal Literaturaren Historia ezagutzen ez genuenean (Ori-xe-ren gerra-aurreko *Edestia* ez zen gazteonganaino heldu, eta artean Villasanterena ez zegoen idatzita), iraganeko idazle on bat ez ezik olerkari-andana ederra ere bagenuela erakutsi zi-gun liburu hura da niretzat gogoangarriena: *Milla euskal olerki eder* (1954). Paper finean inprimatua, ehunka orrialdekoa, mila olerki zekartzana, Jainkoak daki zenbat ordu eta sos kostatako argitalpen miretsia.

Orain baino olerki gehiago irakurtzen nuen urte erabakiga-ri haietan Aita Xantiren argitalpen hori, geroko *Olerti* (1959) eta gainerakoak baino, nire euskal kultur-segurtasunen euska-ri bat izan zen, inoiz ahaztu ez dudana, eta neure buruari “*Izan ere bagara!* esateko balio izan zidana.

Gau ilunduan, bat-bateko oinartzargi gertatu zen antologia hura niretzat, urtez urte eta belaunez belaun euskaraz eginda-ko lauzpabost mendeko olerti-ibilaldi historikoaren lekuko ha-ragiztatua izan zen *Milla euskal olerki eder*.

Aita Xantik asko eta ugari idatzi zuen, baina “nire” Xanti Onaindia, argitaratzaile hori da, bizitza osorako zirrara hori inda-rean utzi zidana. Haren jaiotzako ehungarren urte honetan, egiaz dago, bada, bizirik eta neugan Aita Xanti, barne isilean baina zinez bizirik. Egokiera honetan, aitoren txiki baina nire-tzat baliozko hau izan bedi bihotzez eskaintzen diodan nire omen-gorazarrea.

*Joseba Intxausti*  
2009-09-24